

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
2/2012	R3/2015	2015-01-26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. 2005-2008 ekitaldian zerga ordainarazteko administrazio eskuduna

R 3/2015 Ebazpena

2/2012 Espedientea

Gasteizen, 2015eko urtarrilaren 26an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

## HITZARTU DU

Gipuzkoako Foru Aldundiak Estatuko Zerga Administrazioaren aurrean aurkeztutako gatazkaren inguruan; izan ere, bere ustez, hari dagokio 2005 eta 2008 arteko ekitaldietako 1. ERAKUNDEAREN (IFZ ----) balio erantsiaren gaineko zergaren aitorpen/likidazioetatik ateratako zenbatekoa ordainarazteko eskumena, hark Gipuzkoako Lurralde Historikoan egindako eragiketei dagokien zatian; beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiari transferitu behar zaio. Gatazka hori 2/2012 zenbakiarekin izapidetzen da Arbitraje Batzordearen aurrean, Gabriel Casado Ollero jauna txostengile duela.

## I. AURREKARIAK

1.- 2/2012 gatazka Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu zuen, 2012ko urtarrilaren 19ko idazkiaren bidez. Horren sarrera egun berean erregistratu zen Arbitraje Batzordearen aurrean.

2.- Espedienteak honako aurrekari hauek ditu:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
2/2012	R3/2015	2015-01-26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. 2005-2008 ekitaldietan zerga ordainarazteko administrazio eskuduna

a) 1. ERAKUNDEA (aurrerantzean, «erakundea» Z/ZZ talde kontsolidatua osatzen duen mendeko erakundea da. Talde kontsolidatuaren erakunde nagusia 2. ERAKUNDEA (IFZ ----) da.

b) Erakundeak ez zuen 2004-2007 ekitaldietako balio erantsiaren gaineko zergaren zein sozietateen gaineko zergaren aitorpenik aurkeztu Gipuzkoan.

c) 2008ko apirilaren 18an, Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Departamentuaren Ikuskapeneko Zuzendariordetza Orokorrak txostena igorri zuen. Haren arabera, aipatutako erakundeak eragiketak egin zituen Gipuzkoan 2004 eta 2007 arteko ekitaldietan eta, ondorioz, bertan aurkeztu behar zituen, aipatutako ekitaldietan, balio erantsiaren gaineko zergari eta sozietateen gaineko zergari zegozkien aitorpenak; izan ere, 2004-2006 eta 2007 ekitaldietan, haren eragiketa-bolumenak 6 eta 7 milioi euroak gainditu zituen, hurrenez hurren.

Aipatutako ondoriotik abiatuta, txostena sinatutako aktuarioek eskatzen zuten Estatuko Administrazio Orokorren organo eskuduna estutzeko, hark baitu ikuskapen-eskumena, aipatutako ekitaldietan, Gipuzkoan gauzatutako eragiketa-bolumenari dagokion ehunekoa aplikatzearen ondoriozko zerga-egiaztapena eta erregularizazioa gauzatu zitzan erakundean, balio erantsiaren gaineko zergari eta sozietateen gaineko zergari zegokienez.

Aipatutako txostena Zerga Administrazioko Estatu Agentziari igorri zitzaion 2008ko maiatzaren 9an, esandako zerga-aitorpenak erregularizatzeko eskatuz, eragiketa-bolumenaren proportzioa egiaztatu ondoren.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
2/2012	R3/2015	2015-01-26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. 2005-2008 ekitaldian zerga ordainarazteko administrazio eskuduna

d) Bere ikuskapen-eskumenaren jardueran, Zerga Administrazioko Estatu Agentziako Zergadun Handien Ordezkaritza Nagusiak aipaturako erakundearen egiaztapen-jarduerak gauzatu zituen, 2005 eta 2008 arteko ekitaldietako balio erantsiaren gaineko zergari zegokionez, 2004ko ekitaldia preskribatua baitzegoen. Egiaztapen-jarduera horien ondorioz, 2009ko ekainaren 24ko AZZ/ZZZZZZZZ adostasun-akta igorri zen, eta akta horretatik ondorioztatutako likidazioan, aipaturako ekitaldi bakoitzean Gipuzkoari egotzi dakizkiokeen eragiketen proportzio jakin bat ezarri zen.

Nolanahi ere, akta horretan ez dira agertzen Estatuko Administrazio Orokorrak 1. ERAKUNDEAK gauzatutako eragiketen zati bat Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatzeko erabiltzen dituen Ekonomia Itunean aurreikusitako konexio-puntuak, egiaztatutako zergarako eta ekitaldietarako.

e) 2005-2007 ekitaldietako sozietateen gaineko zergari buruz Zerga Administrazioko Estatu Agentziak, Zergadun Handien Ordezkaritza Nagusiak, Zerga eta Aduana Kontrolerako Sailak eskumena ez duen Administrazioan dirua sartzearen inguruan igorritako txostenetan, jakinarazten da, 1. ERAKUNDEAK Z/ZZ talde kontsolidatua osatzen duela, haren menpeko erakunde bezala. Talde kontsolidatuaren erakunde nagusia 2. ERAKUNDEA da, eta haren inguruan jadanik existitzen zen aurretik betetako ikuskapen-aktatik ondorioztatutako behin betiko likidazio bat. Nolanahi ere, aipaturako txostenetan adierazten da, balio erantsiaren gaineko zergari eta sozietateen gaineko zergari dagokienez, eragiketen gauzape-tokia erregulatzen duten Ekonomia Itunaren manuen edukiaren kointzidentziak sozietateen gaineko zergari dagokionez AZZ/ZZZZZZZZ adostasun-aktan ezarritako eragiketa-bolumen berak ezartzea ahalbidetzen duela, balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
2/2012	R3/2015	2015-01-26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. 2005-2008 ekitaldian zerga ordainarazteko administrazio eskuduna

f) 2011ko irailaren 26an Zerga Administrazioako Estatu Agentziak eta EAeko Foru Aldundiek 2006ko maiatzaren 18ko Lantaldeen Ondorioetan adostutakoa betetzeko izandako bileraren aktan, Akta Bakarrei eta Zerga Kontrolari dagozkion zatian (2009), Zerga Administrazioako Estatu Agentziak 5. atalean jakinarazten du ez dagoela ados berak 2005-2008 aldirako balio erantsiaren gaineko zergaren inguruan 1. ERAKUNDEARI egindako aktarekin; izan ere, bere ustez, «tributazio-proporzioa gaizki ezarrita dago, eta % 100 dagokio Estatuari». Zerga Administrazioako Estatu Agentziak ez ditu jakinarazten «tributazio-proporzioa (...) gaizki ezarritzat» emateko arrazoiak.

3.- Estatuko Administrazio Orokorrari azaroaren 22an jakinarazitako azaroaren 18ko 976/2011 Foru Aginduaren bidez, GFAk inhibizio-errekerimendua egin zion Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, eztabaidatutako ordainarazpen-eskumenaren inguruan. Inhibizio-errekerimenduak ez zuen erantzunik jaso, eta hori Estatuak bere eskumena berretsiko balu bezala interpretatu zen. Ondorioz, Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak adostu zuen, 2012ko urtarrilaren 17ko bileran, gatazka hau aurkeztea Arbitraje Batzordearen aurrean.

4.- Bere uziaren oinarri gisa erabiltzen dituen aurrekariak eta oinarriak azaldu ondoren, GFAk azalpen-idazkia amaitzen du Arbitraje Batzordeari eskatuz, gatazka onartu ondoren eta dagozkion izapideen aurretik, honako ebazpen hau emateko: «Gipuzkoako Foru Aldundiak Z/ZZ talde kontsolidatuaren mendeko erakundea den 1. ERAKUNDEAK (IFZ ----) 2005-2008 ekitaldientarako aurkeztutako balio erantsiaren gaineko zergaren eta Z/ZZ talde kontsolidatuaren erakunde nagusia den 2. ERAKUNDEAK (IFZ ----) 2005-2008 ekitaldientarako aurkeztutako aitorten-likidazioen ondoriozko zenbatekoa ordainarazteko eskumena du, 1. ERAKUNDEAK (IF ----) Gipuzkoan gauzatutako eragiketei dagokien zatian; ondorioz, zenbateko horiek Foru Aldundi horri transferitu behar zaizkio».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
2/2012	R3/2015	2015-01-26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. 2005-2008 ekitaldietan zerga ordainarazteko administrazio eskuduna

5.- 2014ko abenduaren 1ean, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak emandako dokumentu hauek erregistratu ziren Arbitraje Batzordean:

- Bilera-akta Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren eta Euskadiko Foru Aldundien artean, 2006ko maiatzaren 18ko Lantaldeen Ondorioetan adostutakoa betetzeko, Akta Bakarrei eta Zerga Kontrolari dagokion zatian (2009), Bilbon, 2011ko irailaren 26an egindakoa.
- Donostian, 2012ko urriaren 11n, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren eta GFAREN artean sinatutako hitzarmena.
- Bilera-akta Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren eta Euskadiko Foru Aldundien artean, 2006ko maiatzaren 18ko Lantaldeen Ondorioetan adostutakoa betetzeko, Akta Bakarrei eta Zerga Kontrolari dagokion zatian (2010), Bilbon, 2013ko martxoaren 22an egindakoa.

6.- 2014ko abenduaren 15eko idazkian, Arbitraje Batzordeak Zerga Administrazioko Estatu Agentziak emandako dokumentazioa jakinarazten dio GFARI, gatazkaren xedearen galera gertatuz gero, Arbitraje Batzordeari jakinarazi diezaion.

7.- Egun berean erregistratutako 2014ko abenduaren 17ko idazkiaren bidez, GFAK honako hau azaltzen du, gatazka honi dagokionez:

«Zerga Administrazioko Estatu Agentziak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 2012ko urriaren 11 sinatutako hitzarmena sinatu zutela. Haren bidez adostu zuten, Estatuko Zerga Administrazioak horri ordainduko ziola (...) zenbatekoa, 1. ERAKUNDEAK (IFZ ----) 2005-2008 ekitaldietarako aurkeztutako balio erantsiaren gaineko zergaren aitorten/likidazioetatik

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
2/2012	R3/2015	2015-01-26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. 2005-2008 ekitaldietan zerga ordainarazteko administrazio eskuduna

ondorioztatutakoa, eta 2. ERAKUNDEAK (IFZ ----) 2005-2008 ekitaldietarako aurkeztutako sozietateen gaineko zergaren aitorpen/likidazioetatik ondorioztatutakoa, 1. ERAKUNDEAK (...) bi tributuetan Gipuzkoan gauzatutako eragiketei dagozkien zatian

Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Foru Aldundiaren aldeko aipatutako ordainketa egin ondoren, Arbitraje Batzordeari jakinarazten zaio aurkeztutako gatazken xedearen galera, eztabaidaren desagerpenaren ondorioz.

Nolanahi ere, jarduera horrek ez du esan nahi, etorkizuneko jardueretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak Arbitraje Batzordearen aurrean aurkeztutako gatazketan nahi duen funtsezko irizpidea mantentzeko uko egiten dionik, lurralde bakoitzean gauzatutako eragiketa-bolumenetik ondorioztatutako ordainarazpen-eskumenari dagokionez».

Aipatutako idazkian, GFAk honako hau eskatzen dio Arbitraje Batzordeari, gatazka honi dagokionez:

«(...) 2/2012 espedienteari (...) dagokion gatazkaren inguruko jarduerak artxibatzea, Z/ZZ talde kontsolidatuaren mendekoa den 1. ERAKUNDEA sozietatearen 2005-2008 ekitaldietako BEZaren eta Z/ZZ talde kontsolidatuaren erakunde nagusia den 2. ERAKUNDE merkantilaren 2005-2007 ekitaldietako sozietateen gaineko zergaren ordainarazpen-eskumenaren inguruan, Gipuzkoan gauzatutako eragiketei dagokien zatian. Artxibatzeko eskaerak 2. ERAKUNDEAREN 2008ko sozietateen gaineko zerga ere hartzen du barne».

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
2/2012	R3/2015	2015-01-26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. 2005-2008 ekitaldietan zerga ordainarazteko administrazio eskuduna

1. Gatazka hau Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu zuen Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean; izan ere, bere ustez, hari dagokio 2005 eta 2008 arteko erakundearen balio erantsiaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren aitorten/likidazioetatik ondorioztatutako zenbatekoa ordainarazteko eskumena, Gipuzkoako Lurralde Historikoan gauzatutako eragiketei dagokien zatian, eta zenbateko hori aipatutako Foru Ogasunari transferitu behar zaio.

2. AAPEn 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, «Arbitraje Batzordearen deialdiei, eraketari, bilkurei, ebazpen-hartzeari, funtzionamenduko araubideari eta prozedurari dagokienez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeari jarraituko zaio, araudi honen ondorio izan daitezkeen berezitasunei kalterik egin gabe».

3. Aipatutako 30/1992 Legearen 87. artikulua arabera, honako hauek amaituko dute prozedura, besteak beste: eskaeraren edo uziaren ebazpena eta atzera egitea, eta «prozeduraren amaiera eragingo du ere bat-batean gertatutako kausak direla eta jarraitzeko ezintasun materialak»; edozer kasutan, emandako ebazpena arrazoitu egin beharko da.

«(...) Prozeduraren xedearen bat-bateko desagerpena gertatzen den kasuetarako, [hori amaituko duen] ebazpena kasu bakoitzean ematen den baldintzaren aitortenean datza, gertatutako jazoeren eta arau aplikagarrien adierazpenarekin» (30/1992 Legearen 42.1 artikulua).

4. Kasu honetan, bi Administrazioek 2012ko urriaren 11n adostutako Hitzarmenean, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak dagokion zenbatekoa ordaintzea onartu zuen. Aurrerago, ordaindu egin zuen eta GFAk jaso zuela adierazi du (Cfr; supra, 7. Aurrekaria); bi baldintzek bi Administrazioen artean

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
2/2012	R3/2015	2015-01-26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. 2005-2008 ekitaldian zerga ordainarazteko administrazio eskuduna

sortutako gatazkaren desagerpena eragiten dute eta, beraz, «prozeduraren xedearen bat-bateko desagerpena» (30/1992 Legearen 42.1 artikulua).

Eta hori, bi Administrazioek adostutako Hitzarmena gatazka zehatz horren xedera zehazki mugatuta ere, defendatzen duten funtsezko irizpidea etorkizuneko jardueretan mantentzen dutela kontuan izan gabe, lurralde bakoitzean gauzatutako eragiketa-bolumenetik ondorioztatutako ordainarazpen-  
eskumenari dagokionez.

Beraz, Arbitraje Batzordeak

### **HONAKO HAU ADOSTEN DU:**

1.- Jarduerak amaitzea eta artxibatzea; izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren artean adostutako Hitzarmenak eztabaidaren bat-bateko desagerpena eragiten du eta, horrekin, gatazka honen xedearena.

2.- Hitzarmen hau Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinaraztea.